

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Irati Anda Villanueva

*Gasteiz, Araba
(1982)*

Aurkibidea



Biografia



1982an jaio zen Gasteizen. Ama Cantabriako Potes herrikoa du, aita Arabako Markiñakoa. Gasteizko Tokieder ikastolan egin zituen ikasketak, 'Euskaraz Bizi' egitasmoan. Ondoren, Ikasbidea ikastolara joan zen. Kirol Zientziak egin zituen Gasteizen bertan, eta gaur egun Mendi Federazioko langilea da. Bertso-eskolan eman zuen izena 13 urterekin, eta bertsoari heldu dio urte mordoan. Mendizaletasuna eta eskalada ere pasioz bizi ditu. Eskalatzailer moduan ibilbide ederra egin du: hiru aldiz izan da Espainiako eskalada txapelduna, eta beste hirutan Euskadikoa.

Zintak

GAS-024

- **Proiektua:** Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Lizeaga, Irati
- **Data:** 2019-04-03
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Euskara txikitatik etxean jaso du

- **Erref:** GAS-024/002
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:01:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Iratiren aita euskaltzale amorratua da eta seme-alabei transmititu die txikitatik. Iratiren ama Kantabriakoa da eta haurdun gelditu orduko euskara ikasten hasi zen. Beraz ama-hizkuntza euskara izan dute Iratik eta bere anaiak.

2. Euskarazko aditzak jolastuz ikasten

- **Erref:** GAS-024/004
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:03:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Txikitan aitarekin aditzak asmatzera jolasten zuten, aditz-taulen gupil moduko batekin. Aitari betidanik gustatu izan zaio euskararen mundua.

3. Ikastetxez aldatzean, euskararekiko sentimendu desberdina topatu zuen

- **Erref:** GAS-024/005
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Gasteizko Toki Eder ikastolan ikasi zuen. Bertan 'Euskaraz bizi' proiektua jarri zuten martxan eta euskal giro horretan egin zituen Iratik ikasketak. Batxilergoa egitera Ikasbidea ikastolara pasa zenean, baina, izugarritzko aldaketa nabaritu zuen. Hango ikasleek euskara zerbait derrigorrezkoa bezala sentitzen zuten, ez zuten maitatzen. Iratiren euskararekiko harremana ere aldatu egin zen eta elebidunagoa izaten hasi zen.</p>

4. Toki Eder ikastolan dena euskaraz; unibertsitatean, aldiz, mugatuta

- **Erref:** GAS-024/006
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:06:31. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Toki Eder ikastolan eguneroko hizkuntza euskara zen, bai eskolan, jolastokian, aisialdian... Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen zuten gurasoek euskara ikasteko ere egiten zuten. Unibertsitatean euskaraz ikastea erabaki bazuen ere, material egokirik ez zuen aurkitzen eta askotan beste hizkuntzetan irakurtzera jotzen zuen.</p>

5. Ikastetxean euskaraz bizitzen ahalegintzeaz nekatu

- **Erref:** GAS-024/008
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Toki Ederretik Ikasbideara pasatu ziren beste ikaskide batzuekin euskaraz egitetik gazteleraz egitera pasa zen. Frustrazio handiz bizi izan zuen berak euskaraz egitea eta ikaskideek gazteleraz erantzutea, eta baita irakasleen euskara maila eskasa ere. Azken urteetan "amore eman" zuen eta berak ere gehiago egiten zuen gazteleraz.</p>

6. Unibertsitatean euskalki desberdinak entzuteko aukera

- **Erref:** GAS-024/009
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Unibertsitatean beste probintzietatik joandako jendea zegoen eta klaseko giroa nahiko euskalduna bazen ere, euskarazko material egokia aurkitzea zaila zen eta askotan itzulpenak egin behar izaten zituzten. Beste euskalkietako ikaskideei ulertzeko batzuetan komeriak izaten zituzten.

7. Bertsolaritzara nola gerturatu zen

- **Erref:** GAS-024/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Aita "Hitzetik hortzera" bertsolaritzari buruzko programaren zale amorratua zen baina Iratiri hasiera batean aspergarria iruditzen zitzaion. 13 urte inguru zituela bertso eskolan izena eman zuen eta euskararekin jolastea dibertigarria iruditu zitzaion. Iratiren iritziz, bertsolaritzak Araban asko lagundu du jendea euskalduntzen.</p>

8. Bertsolaritza Araban

- **Erref:** GAS-024/013

- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Araban bertsolaritzara hurbiltzen den edonor azkenean ez da bertsolari hutsa; familia txikia izanda, bertsoaren inguruan antolatzen den edozertan hartzen dute parte.

9. Jon Maia eta Igor Elortza bertso eskolako irakasle

- **Erref:** GAS-024/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:19:36. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertso eskolan Jon Maia eta Igor Elortza izan zituen irakasle, garai batean Gasteizen ikasten ari baitziren. Aberasgarria izan zan haiengandik ikastea.

10. Kirolerako zaletasuna betidanik izan du

- **Erref:** GAS-024/016
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:49. **Bukatu:** 00:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Txikitatik izan du kirolerako zaletasuna eta abilezia. Mendi taldean eskalatzera eraman zituzten eta ondo ematen zitzaion. Pixkanaka eskaladara bideratu zuen bere bizitza.

11. Zergatik eskalada?

- **Erref:** GAS-024/017
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:24:21. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Eskalada kirol oso osatua da, gorputz osoa erabiltzen da. Adierazteko modu bat ere bada. Frustrazioak gainditzeko ere laguntzen dion tresna bat da. Naturarekin kontaktuan egotean ere disfrutatu egiten du.

12. Eskalatzaile profesionala bilakatzea

- **Erref:** GAS-024/019

- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:27:19. **Bukatu:** 00:30:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

10-11 urterekin hasi zen eskalatzen, Eginio herrian (Arabian). Garai hartan oraindik ez zegoen rokodromorik Gasteizen eta asteburutan bakarrik eskalatzen zuten. Geroago sortu zen Ariznabarrako rokodromoa eta orduan egunero eskalatzeko aukera izaten zuten. 14-15 urterekin piztu zitzaion profesionalki eskaladara bideratzeko grina. Egunero entrenatzen hasi zen eta pixkanaka txapelketak eta emaitzak heldu ziren.

13. Mundu errealeko "idoloak"

- **Erref:** GAS-024/020
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Ez da oso idolo zalea. Eguneroko bizitzan topatzen duen jende arruntari erreparatzen dio gehienbat. Eskalatzaile batzuen estiloa gustatzen zitzaion, baina ez du uste idolatratzea sana denik. Bere ustez mundu hori ez da erreala eta frustrazioak sortzen ditu. Argi izan behar da norberak zer nahi duen eta hori lortzeko lan gogorra egin behar dela. Patxi Usobiaga aipatzen du.

14. Eskalada, garapen pertsonalerako tresna

- **Erref:** GAS-024/022
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:34:49. **Bukatu:** 00:36:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Eskaladan bere bidea nahiko bakarka egin du. Garapen pertsonalean lagundu izan dion tresna izan da.

15. Bizipenak garaipenen gainetik

- **Erref:** GAS-024/023
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:36:02. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Emaitza onak lortu izan ditu baina batzuetan ez da emaitzarik lortzen eta horrek ez du esan nahi lana gaizki egin denik. Bizipenak garaipenak baino garrantzitsuagoak dira Iratirentzat.

16. Bizipen zirraragarriak

- **Erref:** GAS-024/024
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Pare bat bizipen gogoangarri aipatzen ditu: 2007an Munduko Kopako txapelketako finalean sartzea lortu zuen lehen aldiz Zurichen. Beste behin finalera lehen postuan pasa zen froga bat ere gogoan du. Beti kostatu izan zaio horra iritsi zitekeela sinestea.

17. Genero berdintasuna eskaladan

- **Erref:** GAS-024/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:45:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Iratik eskalada munduan ez du gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunik bizi izan. Kiroletan gero eta emakume gehiago ari da parte hartzen. Lehen eskaladan indar fisikoa hartzen zen gehienbat kontuan, gaur egun beste alderdi batzuk ere garrantzia dute: teknika, erresistentzia, malgutasuna...

18. Euskal kirolariak atzerrian

- **Erref:** GAS-024/027
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:45:17. **Bukatu:** 00:46:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Aisia » Kirola

Laburpena:

Espainiako Selekzioan hizkuntza amankomuna gaztelera izan da. Baina atzerrian euskararen existentzia ezagutzen da eta euskaldun bezala hartu izan dituzte.

19. Euskararen presentzia Gasteizko kirolean

- **Erref:** GAS-024/028
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:49:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kirola

Laburpena:

Gasteizen askotan kirol jardueretan euskararen erabilera begiralearen arabera izaten da. Iratiren ustez, euskararen erabilera naturalizatu egin behar da, eta ez behartu. Gasteiz eta Arabako errealitatea askoz elebidunagoa dela onartu behar da. Entrenatzaile gisa animatzen eta ez behartzen saiatzen da.

20. Gasteizko euskararen egoera

- **Erref:** GAS-024/030
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:51:06. **Bukatu:** 00:52:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Garai batean Gasteizen euskararik ez zen entzuten. Klean entzutea arraroa zen. Gaur egun oso normala da edonon entzutea.

21. Gasteizen bizi daiteke euskaraz?

- **Erref:** GAS-024/031
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:52:14. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaur egun ez dago arazorik Gasteizen euskaraz bizitzeko. Leku gehienetan elebidunak dira.

22. Gasteizen euskara bultzatzeko mugimenduak

- **Erref:** GAS-024/035
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:56:10. **Bukatu:** 00:58:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Gasteizen euskara bultzatzen lagundu duten mugimenduak: bertsolaritza, GEU elkarte, 'Gasteiz Kantuz' elkarte, 'Alea' aldizkaria, ikastolako gurasoak... Hala ere, norberaren konpromisoan dago gakoa. Mintzalaguna.

23. Gasteizko euskararen ezaugarriak

- **Erref:** GAS-024/036
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:58:47. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gasteizko euskara oso nahasia dela uste du Iratik, gaztelera edo ingeleseko hitzak sartzen ditu berak, adibidez. Ez du horregatik konplexurik, ezta euskalkirik ez izatearena ere.

24. Gasteiztarra eta euskalduna?

- **Erref:** GAS-024/037
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:00:20. **Bukatu:** 01:01:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Askotan esan diote: "gasteiztarra eta euskalduna?". Iratiren ustez hori aspaldiko irudi bat da, gaur egun asko aldatu da dena.

25. Euskalkiak ulertzeko komeriak

- **Erref:** GAS-024/038
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:01:16. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bertso saio batean, gipuzkoar eta bizkaitarrekin elkar ulertzeko nahikoa komeria izan zituen. Gainera, kantatu ostean, norbaitek "arabarra izateko hain gaizki ez zuela egin" esan zion.

26. Arabako bertsolaritzan emakumeen presentzia handia

- **Erref:** GAS-024/039
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:02:57. **Bukatu:** 01:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Araban gehiengoak emakumeak izan dira bertso eskolan. Bertso saioetan presentzia handia izan dute beti.

27. Zer da euskara Iratirentzat?

- **Erref:** GAS-024/041
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:04:30. **Bukatu:** 01:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Modu desberdinean komunikatzen da euskaraz ala gazteleraz ari denean. Euskaraz egiten duenean bere nortasunaren parte bat dela sentitzen du, ez da hizkuntza hutsa.

28. Hitz egin ez arren, euskara maite duen jende asko dago

- **Erref:** GAS-024/042
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:05:59. **Bukatu:** 01:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Badago jendea eskolan euskaraz ikasi baina gero erabili ez eta galdu duena. Badago, baita ere, euskara maite arren hitz egiten ez duen jendea. Araban lan asko egin da erdaratik euskararen alde.</p>

29. Euskal Telebistako 'El conquistador...' programan egoera bitxia

- **Erref:** GAS-024/044
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:08:40. **Bukatu:** 01:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

<p>Euskal Telebistako langileekin harremana euskaraz izaten zen. 'El conquistador del fin del mundo'</p> <p>programan egoera bitxia sortzen zen; programa gazteleraz zen baina parte-hartzaile gehienak euskaldunak zirenez, kamera atzean beraien artean euskaraz egiten zuten. Grabatu behar zutenean, ordea, hizkuntza aldatu behar izaten zuten.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com